

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Autonomia erkidegoek EBeko ingurumen-planetan partaidetza handiagoa izatea eskatu dute

*Nafarroak autonomia erkidegoek duten jarrera bateratua gaur aurkeztu du Europar Batasuneko Ingurumeneko Ministro Kontseiluaren aurrean*

Miércoles, 16 de diciembre de 2015

Nafarroak, Europar Batasuneko Ingurumeneko Ministro Kontseiluaren aurrean, biodibertsitatearen gaitan autonomia erkidegoek duten jarrera bateratua aurkeztu du; alor horretan tokiko eta eskualdetako agintarien partaidetza handiagoa eskatzen dute ekintza eta estrategiako planak egiteko orduan, plan horiek biodibertsitatearen galerari modu eraginkorrean eutsi diezaioten eta ekosistemen degradazioa geldiarazteko, haien eraberritzea erraztuz.



Elizalde kontseilaria Europar Batasuneko Ingurumeneko Ministro Kontseiluaren bilkuran.

Gogoratuko denez, aurtengo bigarren seihilekoan autonomia erkidegoek Ingurumeneko Ministro Kontseiluan parte hartzeko koordinazio-lanak egin ditu Foru Komunitateak. Horregatik, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilari Isabel Elizalde, gaur, asteazkena, hilak 16, EBeko Ingurumeneko Ministro Kontseiluan parte hartu du. Denbora-tarte horretan, Elizalde zuzentzen duen departamentuak Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariaren laguntza izan du koordinazio-lanak egiteko orduan.

### Airearen kalitatea eta biodibertsitatea

Bileran, honako gai hauek eztabaidatu dira: kutsatzaile atmosferikoen estatuko isurketak murrizteari buruzko zuzentarau-proposamena, bai eta 2020rako EBren Biodibertsitatearen Estrategiaren tarteko berrikuspenerako ondorioak ere, beste gai batzuen artean.

Kutsadura atmosferikoak jarraitzen du izaten EBean ekidin daitezkeen gaixotasunei eta heriotza goiztiarrari lotutako ingurumen-faktore nagusia; beraz, arazoa airearen kalitateari buruzko marko berri batean jorratzea erabaki zen, “Europarako aire purua” programa; haren helburua isurketak murriztea da, aire-kalitatea hobetzen laguntzea eta kutsaduraren ondoriozko heriotza goiztiarrak murrizten laguntzea.

Programa horren barnean sartutako neurrietako bat zuzentarau-proposamena da, kutsatzaile atmosferiko batzuen isurketak murrizteari buruzkoa dena (2013ko abenduan argitaratua), eta haren xedea ondorengo ziurtatzea da: egungo zuzenturuan 2010erako finkatutako estatuko isurketen gehieneko mugak 2020ra arte aplikatzea, bai eta 2020tik eta 2030tik aurrera ere isurketen estatuko muga berriak ezartzea; aldi berean, EBeko legeria 1999ko Goteborgeko protokolutik ateratako nazioarteko konpromisoari egokitzea. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak jakinarazi duenez, oro har, autonomia erkidegoek proposamen honi harrera ona egin diote, eta Goteborgeko protokoloaren ildotik ez doazen zamak kentzeko eskatzen dute.

Asteazken honetako kontseiluan jorratu beharreko bigarren puntua Biodibertsitatearen Estrategia 2020ren tarteko berrikuspenari buruz kontseiluak ateratako ondorioak dira. Haren helburua 2020. urtea baino lehen EBeko biodibertsitatearen galera eta sistemen degradazioa gelditzea da, bai eta haiek eraberritzen laguntzea ere, ahal den neurrian.

Puntu horri dagokionez, autonomia erkidegoek azpimarratu dute erabilgarri dauden baliabideak areagotzeko eta mugiarazteko beharra dagoela, eta finantzaketa-iturrien alboko onurak maximizatzeko beharra.



Nafarroako ordezkariak EBaren aurrean Espainiako Ordezkaritza Iraunkorreko Ekonomia Gaietarako kontseilariaren alboan.